

BEROTEGI EFEKTUA ETA KLIMA ALDAKETA

Bideoa ikusi eta egin hurrengo ariketak:

1. **Bideoa 2:23 minutu arte** ikusi eta ondoren, bete hutsuneak berotegi-efektua definitzeko:

BEROTEGI-EFEKTUA

Lurraren barneko tenperatura kanpoko baino _____ da. Lurra _____ bidez berotzen da. Gero, Lurrak bero hori _____ egiten du. _____ ez du uzten bero hori ateratzen, orduan, Lurraren _____ gero eta altuagoa da.

2. **Bideoaren 2:23-3:32 tartea** ikusi eta esan zeren bidez botatzen den karbono dioxidoa atmosferara, adibidez: kotxeen bidez. Eman adibide gehiago.

3. **Bideoaren 3:32-6:02 tarte**a ikusi eta esan zer gertatu daitekeen tenperatura igotzen bada gure planetan, adibidez, ekaitz gogorrak egongo dira. Eman adibide gehiago.

4. **Bideoaren 6:02-7:54 tarte**a ikusi eta erantzun hurrengo esaldiak egia edo gezurra diren.

- Berotegi-efektua murrizteko guk ere zerbait egin dezakegu.
- Energia aurreztu dezakegu hurrengoak eginez:
 - Argia ez badugu behar itzali.
 - Ordenagailua egun osoan zehar piztuta izan.
 - Kontsumo handiko bonbilak erabili.
 - Energia berriztagarriak erabili ahal badugu.
- Kotxea gehiago erabili.
- Garraio publikoa erabili.